

AFEKTIBITATE-OSASUNA, SEXU-OSASUNA

Non hitz egin sexuari buruz? Non izan argibideak?

Emakumeari Laguntzeko Zentroa (ELZ) da honakoei buruzko informazio oro eskuratzeko tokia: sexualitatea, antisorgailuak, abortua, sexu bidezko eritasunak...

Posta elektronikoz ere galde dezakezu: *aSEXOrate@baragazte.org*

Emakumeentzat soilik?

Pertsona orori zuzenduriko zerbitzua da, edozein izanik ere sexua, adina, egoera zibila, sexu orientazioa, jaioterria...

Eta haurdun banago?

Haurdunaldiaren lehenengo 3 hilabeteetan hasi behar duzu osasun arreta jasotzen. Horrela, haurtxoaren osasunak gehieneko onura izango du. Hilero eginen dizute bisita. Oso garrantzitsua da bisita orotan agertzea.

Eta ginekologia-azterketak egiteko?

Galde egiozu etxeko medikuari.

Nora jo dezakezu?

Barañaingo ELZ

Caimito del Guayabal plaza

31010 Barañain

ZITA ESKATUA: 948 198 656

Posta-e: *cam.baranain@cfnavarra.es*

Zer da Barañaingo berdintasunerako zerbitzua?

Berdintasunerako Zerbitzua Udalak eskainiriko baliabidea da, Barañainen bizi diren gizon-emakumeen aukera berdintasuna sustatzeko.

Zerbitzuak hainbat eremutan dihardu: Hezkuntza, Osasuna, Gazteria, Enplegua, Kultura, Immigrazioa... Hori guztia, emakumezkoen egoera hobetzeko eta eremu publikoan haien parte-hartzea sustatzeko.

Halaber, gizonezkoen parte-hartzea sustatzeko eremu pribatuan.

Nori zuzendua?

- Gai honen inguruan proposamenik edo kezkarik duen Barañaingo herritar orori.
 - Udaletxeko arlo eta udal zerbitzu orori.
 - Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako lan egin nahi duten udalerriko erakunde publiko edo pribatu orori, beti ere Barañaingo herritarrei zerbitzuak eskaintzen badizkiete. Hain zuzen ere:
Gizarteari, Kulturari edo Kirolari loturiko Erakundeei edo Elkarteei

Zer du xede?

- Hezkidetza eta gizon-emakumeen aukera berdintasuna erraztea.
 - Bizitza publikoan emakumeen parte-hartzea sustatea.
 - Genero ezberdintasunak gutxitzea eta desagerraraztea.
- Hiritarrek beren bizi-esparruak -lana, familia eta norbanakoarena-, horien denen adiskidetzeta sustatea.
 - Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea.

Nola jarri harremanetan?

Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoa

Bake plaza z/g

31010 Barañain

Tlf: 948 265 558/ 948 199 870

Posta-e: pio@baranain.com

Web orria: www.baranain.es

Barañaingo Udalak Emakumeari Laguntzeko duen Zentroa... zer da?

Doako zerbitzua, Barañaingo heldu orori banakako arreta –integrala– eskaintzeko, beti ere babesteko neurri bereziak eta laguntza soziala, juridikoa edota psikologikoa behar dituztenei zuzendurikoa.

Zentroak, konponezineko arazoan aurrean, irtenbide alternatiboak eskaintzea du xede, soluzioak bilatu eta arrakastarik izan ez duenari laguntzea, nor bere bizitzaren helmugetara iristeko erabaki-hartzeetan gidatzea...

...hain zuzen ere, ondoko egoeretan:

- Fisikoari edo psikeari zuzenduriko tratu txarrak daudenean.
- “ Arazotsuak ” gertatzen diren ezkonduetako banaketetan, eta egoera horien ondorioz sorturiko familiarterako gatazkak daudenean.
 - Banatzeko erabaki-prozesuetan.
 - Sexu bidezko indarkeria dagoen kasuetan.
- Indarkeriaren prebentziorako eta Tratu Ona Sustatzeko egoeretan.

Zentroak eskaintzen du:

- Laguntza juridikoa.
- Laguntza psikologikoa.
- Laguntza soziala.

Nola jaso Zentroaren arreta?

- Norberaren ekimenez.
- Barañaingo bestelako zerbitzuen, gizarteari eta osasunari loturiko erakundeen eta Udalaren beraren bitartez.

Nora jo dezakezue?

Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoa

Bake plaza z/g

31010 Barañain

ZITA ESKATUA: 948 199 870

Posta-e: ssb@baranain.com